

VITORIA
3 DE MARZO

5. Edizioa / 5 Edición



ENCUENTROS
Zinexit
TOPAKETAK

40
URTEAÑOS

URRIAK
08/09/10/11
OCTUBRE


Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Golem Azkuna Zentroa
Sarrera doan/Entrada gratuita



Zinexit Topaketak 2019

Programazioa/Programación

Golem Azkuna Zentroa

FILMA/PELÍCULA	EGUNA/DÍA	ORDUA/HORA
VITORIA 3 DE MARZO	Urriak 8 Octubre	19.30
WHAT HAVE WE DONE TO DESERVE THIS?	Urriak 9 Octubre	19.30
STITCHES	Urriak 10 Octubre	19.30
SLAM	Urriak 11 Octubre	19.30

Sarrera doan/Entrada gratuita

Zinexit

Zinexit

Topaketak

5. Edizioa / 5 Edición

Iaz, Zinexit Erakustaldiak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 70. urteurrenarekin bat egin zuen eta, aurten, 2019an, emanaldiaren 10. urteurrena ospatzen dugu. Dagoeneko, 10 urte igaro dira Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzak mobilizatzeko, hausnartzeko eta bizikidetzeta eta giza eskubideak sustatzeko tresna giza zinemaren aldeko apustua egin zuenetik. Eta, orain, 10 urte geroago, eskerrak eman nahi dizkizuegu, orain arte gurekin batera egoteagatik. Hori dela eta, beste hainbat sorpresaren artean, Zinexit Topaketa berezi hau aurkezten dizuegu.

Oraingoan, Victor Cabaco zuzendariaren «**Vitoria, 3 de marzo**» filma aukeratu dugu. Filma, kritikek esan duten bezala, memoriaren zinema egiteko ahalegina da, buruan dugun tragedia bat oroitzeko. Zinema soziala eta konprometitua da; kontzientziak eragin nahi ditu eta ahaztu ez dadin borrokatzeko deia egiten du. Baina, halaber, gertaera haren biktimentzako omenaldia ere bada, Pedro María Martínez, Francisco Aznar, Romualdo Barroso, José Castillo eta Bienvenido Peredarentzako omenaldia, bai eta zorigaiztoko 1976ko martxoaren 3 hartan zaurituak izan ziren hainbat eta hainbat biktimentzako ere.

Horrekin batera, urteurrenoko opari gisa, aurten 2019ko Zinexit Erakustaldiaren «aperitibo» ez da film bakarra izango eta, horregatik, urriaren 9an, 10ean eta 11n ere zinemara gonbidatu nahi zaituztegu. Aperitibo horrek ase zaitzazueta, eta azaroan egingo den Zinexit Erakustaldiaren 10. edizioan gurekin egoteko gonbita egitea nahi dugu. Zain gaituzue.

Si el año pasado Zinexit se sumaba a la celebración de los 70 años de la Declaración Universal de los Derechos Humanos, este año 2019 lo que celebramos son los 10 años de la Muestra. Han pasado ya 10 años desde que la Dirección de Derechos Humanos del Gobierno Vasco, con el apoyo de Irudi Berriak, quiso apostar por el cine como herramienta de movilización, reflexión y promoción de la convivencia y los derechos humanos. Y ahora, 10 años después, queremos daros las gracias por haber caminado con nosotras todo este tiempo y por eso, entre otras sorpresas, os presentamos un Zinexit Topaketa muy especial.

En esta ocasión, hemos elegido la película del director Victor Cabaco, «Vitoria, 3 de marzo», una película que, tal y como se ha dicho en sus críticas, es un intento de cine de la memoria, una llamada al recuerdo de una tragedia que permanece en nuestras mentes. Se trata de un cine social y comprometido que quiere agitar conciencias y convocar a la lucha contra el olvido, pero también se trata de un homenaje a sus víctimas, a Pedro María Martínez, Francisco Aznar, Romualdo Barroso, José Castillo y Bienvenido Pereda, y a las numerosas víctimas heridas aquel fatídico 3 de marzo de 1976.

Sin embargo, además, como regalo de cumpleaños, queremos que este año el aperitivo del Zinexit 2019 no se quede en una sola película y por eso, os queremos invitar al cine también los días 9, 10 y 11 de octubre. Queremos que este aperitivo os deje un buen sabor de boca que os invite a acompañarnos en la 10ª edición de la muestra que tendrá lugar en el mes de noviembre. Os esperamos.

Monika Hernando Porres

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaria, Lehendakaritza.
Directora de Víctimas y Derechos Humanos, Lehendakaritza.

Vitoria 3 de marzo

Espainia. 2018. 90 min. Fikzioa-Drama

Zuzendaria/Director: Víctor Cabaco.

Ekoizketa/Producción: Sonora Estudios, Gariza Films, Zumarraga Films.

Produktore eragileak/Productores ejecutivos:

Pako Ruiz, Oskar Bañuelos, Lara Izagirre, Asier Bilbao.

Gidoia/Guión: Juan Ibarrondo, Héctor Amado.

Idea originala/Idea original: Oskar Bañuelos.

Argazkia/Fotografía: Gaizka Bourgeaud.

Musika/Música: José Luis Canal.

Aktoreak/Intérpretes: Amaia Aberasturi, Ruth Díaz, José Manuel Seda, Alberto Berzal, Mikel Iglesias, Iñaki Rikarte, Oti Manzano, Iñigo de la Iglesia, Asier Macazaga.

1976an, Franco hil eta oso gutxira, Gasteiz probintziako hiriburu lasaia zen. «Abade eta militarren» hiria. Gutxik imajina zezaketen urte hartan hain gertakari lazgarriak biziko zituztenik, hiria betiko aldatuko zutenak. Gertakari horiek garrantzi handia izan zuten Espainiako trantsizio izenez ezagutzen denaren bilakaeran, bereziki Euskadin.

Hiria aldatzen ari zen; milaka langilek soldata-hobekuntzak eskatzen zituzten, baina baita gizarte- eta politika-aldaketak ere. Haien aurrean, aldaketa horien aurka patronala eta agintariak zeuden, eta edozertarako prest zeudenak. Edozertarako.

Zorigaiztoko ondorioa ezaguna da: bost langile hil zituen poliziak, martxoaren hiruan. Orduetik berdina ez den hiriaren memoria kolektiboan betiko geratu da gogoan egun hori.

KOLABORATZAILEAK/COLABORADORES:

sonora : **BARTONFILMS**

EMANALDIA / PROYECCIÓN

Urriak 8, asteartea. 19:30ean.

Martes, 8 de octubre. 19:30h.

Golem Alhóndiga. Sala 1 Aretoa*

SOLASALDIA / COLOQUIO

Honako hauek izango dira: filmaren zuzendaria, ekoizlea eta aktoreak.

Asistirán: director, productor y actores de la película.

*Leku mugatua. Aforo limitado

En 1976, estando muy reciente todavía la muerte de Franco, Vitoria era una tranquila capital de provincia. Una ciudad «de curas y militares». Pocos podían imaginar que, ese año, se iban a producir unos sucesos dramáticos, que cambiarían —de una vez y para siempre— la ciudad. Unos hechos que tuvieron también una importancia indudable en el devenir de la llamada transición española, especialmente en el País Vasco.

La ciudad estaba cambiando, miles de personas trabajadoras planteaban mejoras salariales, pero también cambios sociales y políticos. Frente a ellos, una patronal y unas autoridades que no estaban dispuestas a permitirlos y que estaban dispuestas a todo. A todo.

El trágico resultado es conocido: la muerte de cinco trabajadores a manos de la policía el tres de marzo. Un día que ha quedado grabado para siempre en la memoria colectiva de una ciudad que desde entonces no fue ya la misma.



What have we done to deserve this?

Austria. 2018. 91 min. Fikzioa-Komedia

Jatorrizko izenburua/Título original: Womit haben wir das verdient?

Zuzendaria/Director: Eva Spreitzhofer.

Ekoizketa/Producción: Thomas Hroch, Gerald Podgornig.

Gidoia/Guion: Eva Spreitzhofer.

Argazkia/Fotografía: Xiaosu Han.

Muntaia/Montaje: Alarich Lenz.

Musika/Música: Iva Zabkar.

Aktoreak/Intérpretes: Caroline Peters, Simon Schwarz, Hilde Dalik, Pia Hierzegger, Alev Irmak, Chantal Zitzenbacher.

EMANALDIA / PROYECCIÓN

Urriak 9, asteazkena. 19:30ean.

Miércoles, 9 de octubre. 19:30h.

Golem Alhóndiga. Sala 6 Aretoa*

*Leku mugatua. Aforo limitado

Wanda 49 urteko vienarra da, feminista eta atea. Bere mundua hankaz gora jarri da, Nina alaba nerabea hiyab batekin iritsi denean etxera. Nina, ezkutuan, islamera aldatu da; halala baino ez du jaten, otoitzan denbora zorrotz betetzen du eta Fátima deitzea nahi du.

Wanda izututa dago; izan ere, beti egon izan da erlijio-fanatismoaren aurka erabat. Hala ere, alperrik da Nina ezaguerara ekartzeko egiten duen ahalegin guztia. Gainera, gauzak are okerragoak dira; izan ere, Wandaren senar ohiak semea izan du bere azken emaztearekin, eta Wanda samintasunez hasi da oroitzen bere arazo bakarrak alaba eskolara ez joatea eta tabakoa erretzea zireneko garaia. Hanife ezagutzen duenean, Ninaren neska-lagun musulmanaren ama, aliatu bat aurkitzen du. Hanifek Austriara emigratu zuen, umea zela. Honek emakumeak irudi hain zaharkitutik aldentzea aldarrikatzen du gogo biziz, eta bere alaba irudi horretatik aldentzeko borrokatuko da.

El mundo de Wanda, una mujer vienesa de 49 años, feminista y atea, se pone patas arriba cuando su hija adolescente, Nina, llega a casa con un hiyab. En secreto, Nina se ha convertido al Islam; come exclusivamente halal, observa estrictamente los tiempos de la oración y quiere que le llamen Fátima.

Wanda está horrorizada, ya que siempre se ha opuesto firmemente al fanatismo religioso. Sin embargo, fallan todos los intentos para hacer que Nina entre en razón. Para empeorar las cosas, el ex-esposo de Wanda acaba de tener un hijo con su última esposa, y Wanda comienza a añorar aquel tiempo en el que sus únicos problemas eran el absentismo escolar y el tabaquismo de su hija. Cuando conoce a Hanife, la madre de la novia musulmana de Nina, encuentra una aliada. Hanife, que emigró a Austria cuando era niña, está decidida a salvar a su hija de la imagen anticuada de las mujeres que Nina predica con tanto entusiasmo.



Stitches

Serbia, Eslovenia, Croacia, Bosnia y Herzegovina. 2019. 105 min. Fikzioa-Drama.

Jatorrizko izenburua/Título original: Šavovi.

Zuzendaria/Director: Miroslav Terzic.

ekoizketa/Producción: Uliks Fehmiu, Milena Garfield.

Gidoia/Guión: Elma Tataragic.

Argazkia/Fotografía: Damjan Radovanovic.

Muntaia/Montaje: Milena Z. Petrovic.

Musika/Musica: Aleksandra Kovac.

Aktoreak/Intérpretes: Snežana Bogdanović, Marko Bačović, Vesna Trivalić, Dragana Varagić, Jelena Stupljanin, Ksenija Marinković.

EMANALDIA / PROYECCIÓN

Urriak 10, osteguna. 19:30ean.

Jueves, 10 de octubre. 19:30h.

Golem Alhóndiga. Sala 6 Aretoa*

**Leku mugatua. Aforo limitado*

«Stitches» («Puntadak») Drinka Radonjic Belgrad-eko jostun baten lekukotzan oinarritzen da; Drinkak ia bi hamarkada eman zituen bere «seme hila» bilatzen. Erditu eta egun batzuetara, haurra hil egin zela esan zitoten. Baina sekula ez zuen haren gorpurik ikusi, eta ez zuen jakin non lurperatu zuten. Ospitaleko administrazioarekin, mediku, polizia, epaitegi eta udal-funtzionarioekin borrokatu zen, heriotza-ziurtagiria eskuratzeko. Borroka luze hartan, gero eta irregulartasun gehiago aurkitu zituen, bere zalantzak eta haurra sekula hil ez zelako usteari argia jarri zietenak. Ia hogei urte igaro ondoren, azkenean, egia ezagutu zuen.

«Stitches, Srđan Golubović-en Circles (2013) filma egin zenetik, film serbiar onena da. Drama psikologikoa bikaina da; benetako gertaeretan oinarritzen da eta thriller giroa du, Polanskiaren estiloan. (Vladan Petkovic, CINEUROPA)».

«500 familia baino gehiago beren seme-alabak aurkitzeko ahaleginetan ari dira. 500 istorio baino gehiago daude, eta ahots ezezagun asko. Haietako bat kontatzea erabaki dut. (Miroslav Terzic, zuzendaria)».


Gidoirik Onenaren saria, 2019ko Europako Zinemaldian. Pelikula Onenaren eta Emakumezko Aktore Onenaren Kritika saria, 2019ko FEST Internazionalian. Film Onenerako proposatu dute 2019ko Berlingo Zinemaldian.

El guión de «Stitches» («Puntadas») se basa en el testimonio de Drinka Radonjic, una costurera de Belgrado que buscó a su «hijo muerto» durante casi dos décadas. Unos días después de su parto le dijeron que su bebé había muerto. Pero nunca vio su cuerpo ni supo dónde lo enterraron. Luchó con la administración del hospital, los médicos, policías, tribunales y funcionarios municipales, para obtener el certificado de defunción. En esa larga lucha, encontró cada vez más irregularidades en la documentación oficial que alumbraron sus dudas y su creencia de que el bebé nunca murió. Tras casi veinte años, finalmente descubrió la verdad.

«Stitches es la película serbia con mejor narrativa desde Circles, de Srđan Golubović (2013). Se trata de un excelente drama psicológico, inspirado en hechos reales y con una atmósfera de thriller al estilo Polanski. (Vladan Petkovic, CINEUROPA)».

«Hay más de 500 familias que están tratando de encontrar a sus hijos, más de 500 historias diferentes y muchas más voces más desconocidas. He decidido contar una de ellas. (Miroslav Terzic, director)».

Premio al Mejor Guión en el Festival de Cine Europeo 2019. Premio de la Crítica a la Mejor Película y a la Mejor Actriz en el FEST Internacional 2019. Nominada a la Mejor Película en el Festival de Cine de Berlín 2019.



Slam

Australia, Francia. 2018. 115 min.
Fikzioa-Drama.

Zuzendaria/Director: Partho Sen-Gupta.

Ekoizketa/Producción: Marc Irmner, Tenille Kennedy, Michael Wrenn.

Gidoia/Guión: Partho Sen-Gupta.

Argazkia/Fotografía: Bonnie Elliott.

Muntaia/Montaje: Annick Raoul.

Musika/Música: Eryck Abecassis.

Aktoreak/Intérpretes: Adam Bakri, Rachael Blake, Rebecca Breeds, Darina Al Joundi, Danielle Horvat, Abbey Aziz, Damian Hill, Lourdes Abdishou.

EMANALDIA / PROYECCIÓN

Urriak 11, ostirala. 19:30ean.

Viernes, 11 de octubre. 19:30h.

Golem Alhóndiga. Sala 6 Aretoa*

**Leku mugatua. Aforo limitado*

Tarik-ek, bere ahizpa, palestinar jatorriko aktibista erradikala, poesia-errezitaldi baten ondoren desagertzen denean, terrorismo-akusazioei, jazarpen mediatikoari eta komentario arrazistei egin behar izan die aurre. Hura nor zen ezagutzen saiatzen den bitartean, Tarik bere erabakiak zalantzan jartzen hasten da.


Filmak mendebaldeko gizartearen ikuspegi argia eskaintzen digu; bertan, jendeak egia ezagutu aurretik epaitzen du. Eraso terroristen ondorioz, biztanleriak etorkinak mehatxu posible gisa ikusten ditu, eta beldur hori komunikabideek eta politikariek are gehiago nabarmendu dute. Filmean, pertsonaia nagusiak ikasi behar du errealitate hori gainditzeko bera aldi berean etorkina eta australiarra dela onartu beharko duela.


«Filma egitean, koloreko pertsonak, migratzaileak eta musulmanak unidimentsional gisa nagusi direneko irudia alde batera utzi nahi izan dut. Eta, 'musulman guztiak terrorista direlako' usteari uko egiten badiogu? Eta, lehen aldiz, etengabe susmopean bizitzera behartzen dituen estereotipo hori nolakoa den erakusten badugu? Zer ondorio psikologiko ditu pertsonen, gizartera moldatzeko ahaleginetan, gizarteak berengan txertatzen duen ikuspegi negatiboa barneratzeak? (Partho Sen-Gupta, zuzendaria)».

Quando su hermana, una activista radical de origen palestino, desaparece después de un recital de poesía, Tarik debe enfrentarse a las acusaciones de terrorismo, al asedio mediático y a los comentarios racistas. Mientras trata de averiguar quién era ella realmente, Tarik comienza a cuestionar sus propias decisiones.

SLAM nos ofrece una clara visión de la sociedad occidental de hoy, en la que la gente juzga antes de conocer la verdad. Los ataques terroristas han llevado a la población a ver a los inmigrantes como posibles amenazas, un miedo que ha sido enfatizado por los medios de comunicación y la clase política. En SLAM, el personaje principal tiene que aprender que solo puede superar esta realidad al aceptar que él es a la vez inmigrante y ciudadano australiano.

«He querido hacer una película que se alejara de la representación dominante de las personas de color, migrantes y musulmanes como unidimensionales. ¿Y si rechazamos la narrativa de 'todos los musulmanes son terroristas'? ¿Y si, por una vez, mostramos cómo este estereotipo afecta a quienes se ven obligados a vivir bajo la sospecha constante? ¿Cuáles son los efectos psicológicos en las personas cuando internalizan la visión negativa que la sociedad vierte sobre ellas en su esfuerzo por encajar? (Partho Sen-Gupta, director)».





Zinexit

Giza Eskubideen 10. Zinema Erakustaldia

10^a Muestra de Cine
y Derechos Humanos

AZAROAK 25 - 29 NOVIEMBRE

**Azaroan ZINEXIT
Erakustaldiaren 10. ekitaldia
film berrien inguruko eztabaida
eta solasaldiekin.**

En noviembre, 10^a edición de
ZINEXIT con debates y coloquios
en torno a nuevos largometrajes.

ANTOLATZAILEA / ORGANIZA



KOORDINATZAILEA / COORDINA

